



PROPOSATZEN DEN ALDAKETA
GIPUZKOAKO ERREPIDE ETA BIDEEN FORU
ARAUA

PLANGINTZA ETA USTIAPEN UNITATEA

2017ko uztaila

1. PROPOSAMENA - Foru Arauaren titulua.

Egungo idazketa:

Gipuzkoako Errepide eta Bideen Foru Arauaren Testu Bateratua

Arrazoa: Bideak foru arau bidez arautzea egoera historiko baten ondorioa da. Izan ere, Aldundiak nolabaiteko tutoretza zuen udalen gainean, horietako askok ez baitzuten ez baliabide ekonomikorik, ez giza baliabiderik, beren eskumenak behar bezala garatzeko. Garaiak aldatu dira, eta egungo joera da udal autonomian sakontzea. Ez du zentzurik araudi horrek jarraitzea.

Proposamena: Arau osoan, izenburutik hasita, bideen aipamenak ezabatzea eta eremua errepideetara mugatzea, bat etorrira Errepidetako Foru Arau bat duten gainerako Lurralde Historikoekin.

Proposamenaren idazketa:

Gipuzkoako Errepideen Foru Araua

2. PROPOSAMENA - 2. artikulua. Definizioak

Egungo idazketa:

1.- Foru Arau honen ondorioetarako "errepideak" dira ibilgailu automobilen zirkulaziorako eta jendeak erabiltzeko egindako, atondutako eta proiektatutako herri jabetzako lehorreko komunikabide edo azpiegitura guztiak.

2.- Foru Arau honen ondorioetarako "bideak" dira jendeak erabiltzeko dauden herri jabetzako lehorreko komunikabideak, baldin eta errepidetzat hartu ezin badira, zolatu gabe daudelako edo ez dituztelako betetzen ibilgailu automobilen zirkulaziorako egindako, atondutako edo proiektatutakoetan ohikoak diren ezaugarri eta betebeharrak teknikoak.

Herri jabetzako mendi-bide eta basoko pistak, zolatuta egonda ere, "bide" izango dira arau honen ondorioetarako.

3.- Foru Arau honen ondorioetarako ez dira ez errepide eta ez bide, honakoak:

a) Lur hiritarrean edo aldamenean dauden kale, plaza, pasealeku eta gainerako komunikabideak, non eta Foru Aldundiaren errepide sarean zeharbide gisa sartuta ez dauden.

b) "Zerbitzuko bideak". Zerbitzuko bidetzat hartuko dira, nahiz eta herri jabetzakoak izan eta jendeak erabiltzeko irekiak egon, jabeen jarduera jakinetarako osagarri edo lagungarri izateko egindakoak direnean eta hala erabiltzen badira.

c) Jabetza pribatuko errepide eta bideak, kasu guztietan.

4.- Foru arau honen ondorioetarako, galtzadako ertza edo kanpoko marra hau izango da: zolatuta dagoen eta automobilak ibiltzeko den errepide zatiaren kanpoko ertza edo marra.

Bideetan, galtzadako ertza edo kanpoko marra hau izango da: baldin eta zoladurarik baldin badago, zolatuta dagoen zerrendaren kanpoko marra.

5.- Laugunearen ertza edo kanpoko marra hau izango da: errepide edo bideko luerauzketa edo lubetako ezpondek eta, hala badagokio, bideen fabrika obretako eta horien zimenduetako kanpoko parametroek lursail naturalarekin duten intersekzioko marra.

Zubi, zubibide, tunel, egitura edo antzeko obretan, laugunearen ertza edo kanpoko marra hau izango da: obren ertzak lursailaren gainean duen proiektzio bertikala.

Lursail naturala errepide edo bidearen maila berdinean dagoenean, laugunearen ertza edo kanpoko marra hau izango da: arekaren kanpoko marra eta, arekarik ez badago, bide zolatuaren kanpoko marratik 50 zentimetrorara dagoen marra. Zolatu gabeko bideak direnean, laugunearen ertza edo kanpoko marra pasaerakoarena izango da.

6.- Foru arau honetan aipatzen diren distantziak beti horizontalean eta errepide edo bidearen ardatzaren perpendikularrean neurtuko dira.&t9;

Arrazoiak: Definizioak egokitzea nazio eta nazioarte mailako legezko terminologiara. 1. proposamenaren koherentzia

Proposamena: Idazketa aldatzea eta bideen aipamena ezabatzea

Proposamenaren idazketa:

1- Foru Arau honen ondorioetarako "errepideak" dira ibilgailu automobilen zirkulaziorako proiektatutako, egindako eta seinalizatutako jabetza publikoko bideak.

2.- Ez dira errepide izango Foru Arau honen ondorioetarako:

- a) Herrigune barruko sarea osatzen duten kaleak, non eta ez diren Foru Aldundiko Errepide Sareko zeharbide.
- b) "Zerbitzuko bideak". Zerbitzuko bidetzat hartuko dira, nahiz eta jabetzako publikokoak izan eta jendeak erabiltzeko irekiak egon, jabeen jarduera jakinetarako osagarri edo lagungarri izateko egindakoak direnean eta hala erabiltzen badira.
- c) Titulartasun pribatuko bideak, kasu guztietan.
- d) Bizikletak ibiltzeko bakarrik diren erreiak.
- e) Bideak.

4.- Foru arau honen ondorioetarako, galtzadako ertza edo kanpoko marra hau izango da: automobilak ibiltzeko den errepide zatiaren kanpoko ertza edo marra.

5.- Laugunearen ertza edo kanpoko marra hau izango da: errepideko luerauzketa edo lubetetako ezpondek eta, hala badagokio, bideen fabrika obretako eta horien zimenduetako kanpoko parametroek lursail naturalarekin duten intersekzioko marra.

Zubi, zubibide, tunel, egitura edo antzeko obretan, laugunearen ertza edo kanpoko marra hau izango da: obren ertzak lursailaren gainean duen proiektzio bertikala.

Lursail naturala errepidearen maila berean dagoenean, laugunearen ertza edo kanpoko marra hau izango da: arekaren kanpoko marra; arekarik ez badago, bide zolatuaren kanpoko marratik 50 zentimetrora dagoen marra.

6.- Foru arau honetan aipatzen diren distantziak beti horizontalean eta errepideen ardatzaren perpendikularrean neurtuko dira.

3. PROPOSAMENA - 5. artikulua: Gipuzkoako errepide eta bideen sailkapena.

Egungo idazketa:

Gipuzkoako errepideak eta bideak hiru kontzepturi begira sailkatzen dira: jabetzari begira, funtzionaltasunari begira, eta tipologiari eta ezaugarri teknikoei begira.

A.- JABETZARI BEGIRATUTA

Jabetzari begiratuta, bitan banatzen dira Gipuzkoako errepideak eta bideak:

Gipuzkoako Foru Aldundiaren errepideak

Foru Aldundia jabe duten errepideak dira eta "Gipuzkoako Foru Aldundiaren Errepide Sarea" deritzana osatzen dute.

2.- Udalen errepideak eta bideak

Gipuzkoako udalen bat jabe duten errepideak eta bideak dira eta, denen artean, "Gipuzkoako Udalen Errepide eta Bide Sarea" osatzen dute.

B.- FUNTZIONALITASUNARI BEGIRATUTA

Gipuzkoako errepideak, funtzionaltasuna zein duten, honako sare hauetan banatzen dira:

1.- Lehentasunezko Sarea (Sare Gorria):

Lehentasunezko Sarean (Sare Gorria), errepide hauek sartzen dira: nazioarteko ibilbide direnak, Estatuko mugetara eta interes orokorreko portu eta aireportuetara doazenak, autonomi elkarte arteko bide luzeko trafiko handia hartzen dutenak, eta ibilgailu astun ugari edo barneko nahiz kanpoko garraiogai arriskutsuen kantitate nabarmena jasaten dutenak.

2.- Oinarrizko Sarea (Sare Laranja):

Oinarrizko Sarean (Sare Laranja), errepide hauek sartzen dira: Lehentasunezko Sarekoak izan gabe, ibilbide osoak osatuz Herrialde Historikoa egituratzen dutenak eta, zirkulazio handia izanik, beste herrialde historiko edo autonomi erkidego batzuekin komunikatzen direnak.

3.- Eskualde Sarea (Sare Berdea)

Eskualde Sarean (Sare Berdea) errepide hauek sartzen dira: eskualdeak ondoko eskualdeekin lotzen dituztenak, zirkulazio handiegirik izan gabe.

4.- Sare Lokala (Sare Horia eta Sare Grisa)

Sare Lokalean, Gipuzkoako gainerako errepide guztiak sartzen dira, honela banatuta:

4.1.- Sare Horian: eskualde sarekoak izan gabe, udalerrri desberdinetako biztanle guneak lotzen dituztenak edo udalerrri barruan hirigunera eramaten dutenak.

4.2.- Sare Grisean: aurreko sareetan sartzen ez diren guztiak.

Udal jabetzako errepideak, funtzionaltasunari begira, Sare Lokalekoak dira, hau da, Sare Horikoak edo Sare Grisekoak.

C.- TIPOLOGIARI ETA EZAUGARRI TEKNIKOEI BEGIRATUTA

Tipologiari eta ezaugarri teknikoei begira, Gipuzkoako errepideak honela sailkatzen dira:

1.- Autobideak

Autobideak -proiektatuta, eginda eta seinaleztatuta dauden eragatik- honako ezaugarriak dituzten errepideak dira:

- a) Ibilgailu automobilak bakarrik ibil daitezke bertan.
- b) Bi galtzada dituzte, zirkulazioaren noranzko bakoitzerako bana, biak elkarrengandik ongi bereziak. Bereizketa, zirkulaziorako ez den lur zerranda batez edo inoiz beste nolabait egina dute, puntu singular batzuetan edo aldi bateko egoeratan izan ezik.
- c) Ez dute inolako errepide, bide, trenbide nahiz pasabiderekin maila bereko gurutzadurarik.
- d) Aldameneko lurretara edo lurretatik autobidera sartzerik ez dago.

2.- Autobiak

Autobiak, autobideen betebeharrak guztiak izan gabe, honako ezaugarriak dituzten errepideak dira:

- a) Bi galtzada dituzte, zirkulazioaren noranzko bakoitzerako bana, biak elkarrengandik ongi bereziak, puntu singular batzuetan edo aldi bateko egoeratan izan ezik.
- b) Ez dute inolako errepide, bide, trenbide nahiz pasabiderekin maila bereko gurutzadurarik.
- c) Aldameneko lurretara edo lurretatik autobidara sartzerik ez dago. Sarrera-irteera jakin batzuk dituzte, tokiaren eta distantziaren aldetik mugatuak.

3.- Errepide arruntak

Aurreko sailetan aipatutako ezaugarriak betetzen ez dituzten errepideak dira.

Errepide arruntak erregelamendu bidez sailkatu ahal izango dira, eraikuntzaren eta diseinuaren aldetik zein ezaugarri dituzten begiratuak.

Arrazoa: Gehitzea "errepide errean aniztuna" sailkapena bide sistemaren errealitatera hobeto egokitzeak. 1. proposamenaren koherentzia

Proposamena: Idazketa aldatzea eta bideen aipamena ezabatzea

Proposamenaren idazketa:

5. artikulua.- Gipuzkoako errepideen sailkapena.

B.- FUNTZIONALITASUNARI BEGIRATUTA

Gipuzkoako errepideak, funtzionaltasuna zein duten, honako sare hauetan sailkatzen dira:

1.- Lehentasuneko Sarean (Sare Gorria). - Errepide hauek sartzen dira: nazioarteko ibilbide direnak, Estatuko mugetara eta interes orokorreko portu eta aireportuetara doazenak, autonomi elkarte arteko bide luzeko trafikoa hartzen dutenak, eta ibilgailu astun ugari edo barneko nahiz kanpoko garraiogai arriskutsuen kantitate nabarmena jasaten dutenak.

2.- Oinarrizko Sarean (Sare Laranja). - Errepide hauek sartzen dira: Lehentasuneko Sarekoak izan gabe, ibilbide osoak osatuz Herrialde Historikoa egituratzen dutenak eta, zirkulazio handia izanik, beste herrialde historiko edo autonomi erkidego batzuekin komunikatzen direnak.

3.- Eskualde Sarean (Sare Berdea). - Errepide hauek sartzen dira: eskualdeak ondoko eskualdeekin lotzen dituztenak, zirkulazio handiegirik izan gabe.

4.- Sare Lokala (Sare Hori eta Grisa). - Gipuzkoako gainerako errepide guztiak sartzen dira, honela banatuta:

4.1.- Sare Horian: eskualde sarekoak izan gabe, udalerrri desberdinetako biztanle gunek lotzen dituztenak edo udalerrri barruan hirigunera eramaten dutenak.

4.2.- Sare Grisean: aurreko sareetan sartzen ez diren guztiak.

5.- Udal jabetzako errepideak Sare Horikoak edo Sare Grisekoak dira.

B.- EZAUGARRI TEKNIKOEI BEGIRATUTA

Ezaugarri teknikoak begira, Gipuzkoako errepideak honela sailkatzen dira:

1.- Autobideak - Proiektatuta, eginda eta seinaleztatuta dauden eragatik, honako ezaugarri hauek dituzten errepideak dira:

a) Ibilgailu automobilak bakarrik ibili daitezke bertan.

b) Bi galtzada dituzte, zirkulazioaren noranzko bakoitzerako bana, biak elkarrengandik ongi bereiziak. Bereizketa, zirkulaziorako ez den lur zerrenda batez edo inoiz beste nolabait egina dute, puntu singular batzuetan edo aldi bateko egoeretan izan ezik.

c) Ez dute inolako errepide, bide, trenbide nahiz pasabiderek maila bereko gurutzadurarik.

d) Aldameneko lurretara edo lurretatik autobidera sartzerik ez dago.

2.- Autobiak. - Autobideen betebeharrak guztiak izan gabe, honako ezaugarriak dituzten errepideak dira:

a) Bi galtzada dituzte, zirkulazioaren noranzko bakoitzerako bana, biak elkarrengandik ongi bereiziak, puntu singular batzuetan edo aldi bateko egoeretan izan ezik.

b) Ez dute inolako errepide, bide, trenbide nahiz pasabiderek maila bereko gurutzadurarik.

c) Aldameneko lurretara edo lurretatik autobidara sartzerik ez dago, sarrera-irteera mugatu jakin batzuetatik izan ezik.

3.- Errepide erreai aniztunak. - Errepide erreai aniztunak dira, autobide edo autobidara izan gabe, gutxienez bi errai dituztenak noranzko bakoitzean, noranzko arteko bereizketa edo muga dutenak, puntu berezi batzuetan izan ezik; sarrerak eta maila bereko bidegurutzak izan ditzakete.

4.- Errepide konbentzionalak. - Aurreko sailetan aipatutako ezaugarriak betetzen ez dituzten errepideak dira.

4. PROPOSAMENA - 9. artikulua- Errepide eta bideen inbentarioak

Egungo idazketa:

1. Gipuzkoako Foru Aldundiak eta udalek beren jabetzako bideen herri jabaria osatzen duten errepideen, bideen eta gainerako ondasun higiezin inbentarioa beti eginik izango dute. Inbentarioak agertu beharko du errepide edo bide bakoitzaren deskribapen ahalik eta zehatzena, luzera, hasierako eta bukaerako mugak eta ezaugarri orokorrak azalduko dituen, ahal dela aipatutako ondasunen mugaketa agiriak ere barne direla.
2. Inbentarioak formalki onartua behar du izan eta behar den bakoitzean zuzendu behar da, beti eguneraturik dagoela bermatzeko.
3. Gipuzkoako errepideak eta bideak Jabetza Erroldan inskribatzeko nahikoa izango da jabe den administrazioan fede publikoa emateko ahalmena duen pertsonak egindako ziurtagiri administratiboa, bertan argiro deskribatu beharko duen ondarsuna, onartutako inbentarioan oinarrituta.

Arrazoa: Bide jabari publikoko mugaketaren exekuzioa arautzea

Proposamena: Aldatu.

Proposamenaren idazketa:

9. artikulua- Errepide inbentarioa. Mugaketa eta ikerketa gaitasuna

1. Gipuzkoako Foru Aldundiak bere jabetzako bideen jabari publikoa osatzen duten errepideen eta gainerako ondasunen inbentarioa izango du beti.

Inbentarioan agertu beharko du errepide bakoitzaren deskribapen ahalik eta zehatzena, luzera, hasierako eta bukaerako mugak eta ezaugarri orokorrak azalduko dituen, ahal dela aipatutako ondasunen mugaketa agiriak ere barne direla.

2. Inbentarioak formalki onartua behar du izan, eta behar den bakoitzean zuzendu behar da, beti eguneraturik dagoela bermatzeko.

3. Gipuzkoako errepideak Jabetza Erroldan inskribatzeko nahikoa izango da jabe den administrazioan fede publikoa emateko ahalmena duen pertsonak egindako ziurtagiri administratiboa, bertan argiro deskribatu beharko duen ondarsuna onartutako inbentarioan oinarrituta.

4. Mugatzea ofizioz edo interesatu batek eskatuta abiatuko da; azken kasu horretan, eskatzailearen kontura joango dira prozedura tramitatzea eta eremuan bertan egin behar diren operazioek berenekin dakartzaten gastuak.

5. Mugatze espedientea abiatzeak Aldundia ahalbidetuko du behar adina lan motz egiteko edo baimentzeko, baita lur-sail pribatu batean ere aurretik jabeari esanda, datuak hartu eta puntuak zehazteko. Horrek ez die eragingo, baina, azkenean onartzen den mugatzearen ondorioz sortu daitezkeen kalte-galeren kalte ordainei.

6. Mugatze onartu eta aktan islatuak Foru Aldundiaren aldeko jabetza eta jabari-titulartasuna adierazten du. Mugarriztatzearen bidez zehaztuko da fisikoki. Mugatze onartu eta Jabetza Erregistroan inskribatuak lehentasuna izango du beste inskripzio batzuekiko zeinek, mugatutako ondasunen jabetza-naturaren arabera, mugatzeak hartzen duen eremu fisikoari berari eragiten baitiote.

7. Foru Aldundiak ikertu ahal izango du zein den bide jabari publikoaren ondasun eta eskubideen egoera; horretarako, beharrezkotzat jotzen dituen datu eta txostenak bildu ahal izango ditu, eta dagokion mugatzearen praktika eta herri jabariaren defentsarako jarduketaren praktika sustatu.

8. Mugatzearen baimen-ebazpena nahikoa agiri izango da mugatze horrekin kontraesanean dauden erregistro egoera juridikoak zuzentzeko. Ebazpen hori nahikoa agiri izango da, orobat, administrazioak jabari publikoko ondasunak inmatrikulatzeko. Orobat, gaitasuna izango du ofizioz jabetza berreskuratzeko espedientea hasteko, ofizioz eta edonoiz, ondasun eta eskubide horien gainean.

5. PROPOSAMENA - 10. Artikulua - Desatxikipena

Egungo idazketa:

1. Lursailak bideen herri jabaritik desatxikitzeke beharrezkoa da desatxikidura legezkoa eta egokia dela azalduko duen espedientearen berri jendeari eman eta, ondoren, xede horrekin ebazpen berezia ematea.

Erabilpen pribatuek ez dute eragingo desatxikidurarik bideen herri jabaritik, denbora luzean iraun badute ere.

2. Antolamendu planen edo obra proiektuen ondorioz errepide zati batzuk ordezkatzeko beste batzuk egiten badira edo lur soberakinak geratzen badira, ordezkatzeko edo soberan geratutako lurak ez dira besterik gabe desatxikituta geratuko. Lur horiek bideen herri jabariari atxikita jarraituko dute, harik eta kontrakoa espresuki erabaki arte, artikulu honetako aurreko puntuan azaldu bezala tramitatu ondoren horri buruzko espedienteak.

Bideen desatxikidura, ostera, erabaki berezirik gabe egin daiteke, baldin eta behar bezala onartutako hirigintza proiektu edo planak betetzean lehengo bideen ordezkari beste batzuk egiten badira.

3. Aurreko puntuetan esandakoa hala izanik ere, jabe den administrazioak desatxikidura berariaz erabaki gabe ere ondasunak trukatu ahal izango ditu eta ordura arte bideen herri jabarikoak ziren ondasunen ordezkari berri ere herri jabarikoak izango diren balio bertsuko beste batzuk eskuratu.

4. Desatxikidura eta truke jarduketak kasuan kasuko errepide eta bideen inbentarioan edota katalogoan jaso behar dira.

Arrazoa: Maiz, desatxikipen txikiak dira, titulartasuna aurreko jabeari itzuli aurrekoak: informazio publikoa egin beharrek trukea mantso eta garestitzen du (egunkari batean argitaratu behar bada); horrela, batzuetan trukea garestiagoa da eskuratu beharreko zenbatekoa baino. Trukeen aukera zabaltzea. Egungo idazketan, ematen du aintzat hartzen direla balio kontable bat duten ondasunak bakarrik; alabaina, maiz azalera desberdinetako bide erabilerako lurzorua trukatu behar dira besterik gabe. Horiek ez dute edo ez dute izango balio kontablerik, bideen herri jabarira atxikita jarraituko baitute.

Proposamena: Aldatu.

Proposamenaren idazketa:

1. Lursailak bideen herri jabaritik desatxikiko dira esanbidezko ebazpen bidez, non desatxikiduraren legezkotasuna eta egokitasuna kreditatu beharko baitira.

Erabilpen pribatuek ez dute eragingo desatxikidurarik bideen jabari publikotik, denbora luzean iraun badute ere.

2. Antolamendu planen edo obra proiektuen ondorioz errepide zati batzuk ordezteko beste batzuk egiten badira, edo lur soberakinak geratzen badira, ordeztutako edo soberan geratutako lurak ez dira besterik gabe desatxikituta geratuko. Lur horiek bideen jabari publikoari atxikita jarraituko dute, harik eta kontrakoa espresuki erabaki arte, horri buruzko espedienteak aurreko puntuan azaldu bezala tramitatu ondoren.

3. Aurreko puntuetan esandakoa hala izanik ere, desatxikidura berariaz erabaki gabe ere ondasunak trukatu ahal izango dira, eta ordura arte bideen jabari publikoko ziren ondasunen ordezkari berri ere herri jabarikoak izango diren balio bertsuko beste batzuk eskuratu.

Trukea, administrazio publikoen artekoa bada eta bide publikoetara bideratzen edo bideratuko diren lurzoru publikoei eragiten badie, egin ahal izango da, betiere funtzionalki parekoak badira.

4. Desatxikidura eta truke jarduketak kasuan kasuko errepide inbentarioan eta katalogoan jaso behar dira.

6. PROPOSAMENA - 11. artikulua- Titulartasuna aldatzea.

Egungo idazketa:

1.- Jabetzaz udalenak diren errepideak Foru Aldundiaren errepide sarean sartu ahal izango dira, sare hori osatzeko han sartzeari komeni denean.

Foru Aldundia errepidearen jabe egiten denean, haren elementu funtzionalak ere bereganatzen ditu, ez ordea han egon litezkeen beste instalazio batzuk, horiek udalarenak izaten jarraituko baitute, besterik erabaki ezean.

2.- Aldundiaren errepideetako zeharbide edo bide-zatiek saihebidetik edo ordezkoi ibilbidetik baldin badute, udalaren jabetzara aldatuko dira Foru Administrazioak hala erabakitzean.

Eskualdatzen diren bide-zatiei dagokienez, Foru Aldundiak erreserba eta babes araubide bat ezarri ahal izango du, hain zuzen ere eragozteko, titular berriak ibilgailuen zirkulazioan ezarritako mugen ondorioz, berez hiri barruko sarekoak diren trafikoa saihebidetara eramatea eta haren funtzionaltasuna oztopatzea. Udalaren berariazko eskumena izango da bidearen ustiaketa arrunta eta apartekoa, baina salbuetsita zirkulazio mozketak osoak eta haren kapazitatea oztopatzen duten neurri murriztaileak hartzea. Horrelako kasuetan, zirkulazio alorrean beste organo batzuei aitortutako eskumenak eragotzi gabe, Foru Aldundiaren organo eskudunaren baimena eskatu beharko da, foru arau honetan ezarritakoaren arabera.

3.- Jabetzaz Aldundiarenak diren Sare Lokaleko, hau da, Sare Horiko eta Sare Griseko errepideek osorik edo gehienez hiritar izaera dutenean, dagokion udalaren edo udalen jabetzara aldatuko ditu Aldundiak, beren luzera osoan.

4.- Sare Lokaleko, hau da, Sare Horiko eta Sare Griseko errepideak dagokion udalaren edo udalen jabetzara aldatu ahal izango ditu Aldundiak, bere ustez errepideak ez badu udalerrir mailakoa baino zabalagoko interesa.

5.- Hiri bidearen izaera hartzen duten errepideen edo errepide zatien jabetza aldatzeko, katalogoan sartu edo handik ateratzeari buruz berariazko erabakia hartu behar du Foru Aldundiak, doakion udalari edo udalei entzun ondoren, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu behar da, emateko egintzaren aktarik gabe.

Aldundiaren sareko errepide bat edo errepide zati bat honako kasu honetan joko da hiri bidetzat: herriko saihebidetara eraikitzearen ondorioz errepide horretako trafikoa gehienbat herri barrukoa denean, aipatu saihebidetarako, eskualdaketaren gai den errepidearen edo zatien alternatiba izanik, Foru Aldundiaren errepideen sareari jarraipena ematen badiot, zerbitzu maila hobea eskainiz.

Hiri bide izaera ez duen errepidea edo errepide zatia eskualdatu ahal izateko, doakion udalak edo udalek eskualdaketara onartzeko berariazko erabakia hartu behar dute. Jabetzaren eskualdaketara ez badute onartzen, Batzar Nagusiek erabakiko dute, kasuan kasuko ebazpenak eta alegazioak kontuan hartuta.

6.- Aurreko puntuetan aipatzen den jabetza aldaketarik egiten denean, ematen den errepidea edo errepide zatia egoera onean eman behar da.

Arrazoiak: Egungo idazketa nahasia hobetu nahasbideak saihesteko. Aukera bat gehitzea: zatia ematea, artapen egoera batean, diru trukean, udalak aurreikusten duenean berriz hiritartzea eskualdatutako zatia.

Proposamena: Idazketa berria

Proposamenaren idazketa:

1.- Jabetzaz udalenak diren errepideak Foru Aldundiaren errepide sarean sartu ahal izango dira, sare hori osatzeko han sartzeari komeni denean.

Foru Aldundia errepidearen jabe egiten denean, haren elementu funtzionalak ere bereganatzen ditu, ez ordea han egon litezkeen beste instalazio batzuk, horiek udalarenak izaten jarraituko baitute, besterik erabaki ezean.

2.- Aldundiaren errepideetako zeharbide edo bide-zatiek saihesbiderik edo ordezko ibilbiderik baldin badute, udalaren jabetzara aldatuko dira Foru Administrazioak hala erabakitzean. Saihesbide edo ibilbide alternatibo bat izango du baldin eta jasaten duen trafikoa batez ere hiritarra bada eta saihesbideak Foru Aldundiaren Errepide Sareari jarraipena ematen badu, hartara zerbitzu maila hobe bat eskainiz.

Eskualdatzen diren bide-zatiei dagokienez, Foru Aldundiak erreserba eta babes araubide bat ezarri ahal izango du, hain zuzen ere eragozteko, titular berriak ibilgailuen zirkulazioan ezarritako mugen ondorioz, berez hiri barruko sarekoak diren trafikoak saihesbidera eramatea eta haren funtzionaltasuna oztopatzea. Udalaren berariazko eskumena izango da bidearen ustiaketa arrunta eta apartekoa, baina salbuetsita zirkulazio mozketak osoak eta haren kapazitatea oztopatzen duten neurri murriztaileak hartzea. Horrelako kasuetan, zirkulazio alorrean beste organo batzuei aitortutako eskumenak eragotzi gabe, Foru Aldundiaren organo eskudunaren baimena eskatu beharko da, foru arau honetan ezarritakoaren arabera.

3.- Foru sareko errepideak zati hiritar batean hasten direnean, eskualdaketa zati horretara bakarrik mugatu ahal izango da, eta foru errepidearen hasiera zati hiritarren amaieran jarriko da. Foru sareko errepideak zati hiritar batean amaitzen direnean, eskualdaketa zati horretara bakarrik mugatu ahal izango da, eta foru errepidearen amaiera zati hiritarren hasieran jarriko da.

4.- Sare Lokaleko errepideak eskualdatu ahal izango dira, Aldundiaren ustez errepideak udalez gaindiko interesik ez duenean.

3.- Jabetzaz Aldundiarenak diren Sare Lokaleko errepideek osorik edo gehienez hiritar izaera dutenean, dagokion udalari edo udalei eskualdatuko dizkie Aldundiak, beren luzera osoan.

6.- 2. eta 3. kasuetan, eskualdatzeak Foru Aldundiaren esanbidezko adostasuna beharko du, eraginpeko udalaren edo udalei entzunda aurretik.

7.- 4. eta 5. kasuetan, eskualdatzeak, gainera, eraginpeko udalaren edo udalen esanbidezko adostasuna beharko da, titulartasunaren eskualdatzea onartzen dutela adierazten duena. Ez badute onartzen, Batzar Nagusiek erabakiko dute, kasuan kasuko ebazpenak eta alegazioak kontuan hartuta.

8.- Eskualdaketak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuta perfektionatu dira, emateko egintzaren beharrik gabe.

6.- Jabetza eskualdaketa egiten denean, ematen den errepidea edo errepide zatia egoera onean eman behar da. Udalek aurreikusten dutenean eskualdatutako zonaldearen ezaugarriak eta diseinua aldatzea, hartara erabilera hiritar berrietara egokitzeko, diru bihurtu daiteke, zenbateko berean, artapen egoera egokia lortzeko egin beharreko konponketen zenbateko aurreikusia. Diru hori egingo dituzten obrak finantzatzeko izango delako konpromisoa hartuko du udalak.

7. PROPOSAMENA - 17. artikulua.- Gipuzkoako Errepide Planaren ondorioak.

Egungo idazketa:

1.- Gipuzkoako Errepide Plana errespetatu behar dute nola herri administrazioek hala partikularrek.

2.- Foru Aldundiari dagokionez:

a) Foru Aldundiak Gipuzkoako Errepide Planean ezarritako helburuetara egokituko ditu errepideen alorreko bere jarduketak.

b) Foru Aldundiak planeko programetan aurreikusitako jarduketak egingo ditu gutxienez.

c) Ezingo da ez errepide eta ez saihesbide berririk egin eta daudenak ezingo dira ez autobide eta ez autobia bihurtu, jarduketa horiek Gipuzkoako Errepide Planean aurreikusita ez badaude.

Puntu honetan xedatutako ondorioei begira, ez da errepide berrizat hartuko lehendik dauden errepideak zabaltea eta hobetzea eta trazatua funtsez aldatu gabe aldatzea edo egokitzea.

3.- Udalen lurralde eta hiri antolamenduko planetan Gipuzkoako Errepide Planeko zehaztapen eta aurreikuspenak errespetatu behar dira, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde antolamenduari buruzko legerian ezartzen den moduan.

4.- Udalen errepide eta bide planetan ezingo da egon Gipuzkoako Errepide Planaren kontrako zehaztapenik.

Arrazoiak: Lurralde plana ez da onartu inoiz. Eraginak egoera horretara taxutzea proposatzen da

Proposamena: Aldatu.

Proposamenaren idazketa:

1.- Gipuzkoako Errepide Plana errespetatu behar dute nola herri administrazioek hala partikularrek.

2.- Udalen lurralde eta hiri antolamenduko planetan Gipuzkoako Errepide Planeko zehaztapen eta aurreikuspenak errespetatu behar dira, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde antolamenduari buruzko legerian ezartzen den moduan.

3.- Udalen errepide eta bide planetan ezingo da egon Gipuzkoako Errepide Planaren kontrako zehaztapenik.

8. PROPOSAMENA - 21.2 artikulua.- Eraiketa proiektuak tramitatzea eta onartzea

Egungo idazketa:

2.- Jendeari berri emateko tramitea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta gutxienez herrialdeko egunkari zabalduenetako batean iragarri behar da.

Arrazoa: Antzeko beste araudi batzuek egunkarietan argitaratu beharra ezabatu dute. Desjabetzapenak daudenean egiten jarraitzen dugu, legeak hala eskatzen duelako, baina betekizun generikoa ezabatuko dugu.

Proposamena: Ezabatzea egunkari batean argitaratu beharra.

Proposamenaren idazketa:

2.- Informazio publikoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta plataforma telematiko ofizialetan iragarriko da.

9. PROPOSAMENA - 26. artikulua.- Desjabetzaren legitimazioa. Herri onura eta lursailak hartu beharra

Egungo idazketa:

Arrazoiak: Errepideei buruzko 37/2005 Legeak 12.8 artikuluan ezartzen duenarekin bat etorritik. Larrialdiko obrei buruzko sartzeari komentatu da; izan ere, Bide Azpiegiturarako Departamentuak batzuetan proiektu batzuk larrialdikotzat jotzen ditu kontratu ondorioekin, baina larrialdiko egoera horrek ez du islarik desjabetze prozesuan, honek ez baitu ezer aurreikusten horri dagokionez. Beraz, lurak hartzeko Nahitaezko Desjabetzearen Legeak aurreikusten dituen ohiko prozedurak erabili behar dira. Horiek, normalean, epe batzuk dituzte, ez egokiak larrialdi horiek ebazteko.

Legearen artikulua honek lurak berehala hartzeko aukera ematen du, aldi baterako, larrialdia ebazteko; izan ere, aurretiazko depositua eta okupazio azkarreko kalte-ordaina ordaindu beharra ezabatzen ditu, zeinak Nahitaezko Desjabetzearen Legeko larrialdiko prozedurak ezartzen dituen baldintza baitira lurak hartu ahal izateko. Alabaina, artikulua irakurketak zalantza batzuk uzten ditu jarraitu beharreko tramitearen inguruan baldin eta larrialdiko obrek behin betiko izaerako okupazio bat behar badute.

Proposamena: 8. apartatu bat gehitzea.

Proposamenaren idazketa:

8. Errepidetan larrialdiz obrak egiteko adierazpen akordioak berekin ekarriko ditu, batetik, erabilera publikoko adierazpena, eta, bestetik, gauzatzeko behar diren lurak aldi baterako okupatu beharra; eta ez eskatuko aurretik informazio publikoaren tramiterik egin beharra, aurretik depositua ordaindu beharra eta, hala badagokio, okupazio azkarreko kalte-ordaina ordaindu beharra aldi baterako okupatzeagatik, nahitaezko desjabetzaren legediak adierazten duen bezala.

Aldi baterako okupazioak eragiten dituen kalte-ordain eta kalteak administrazioak balioetsiko ditu, betiere okupatu aurretik balioetsi badaitezke, jabearekin adostuta larrialdia adierazi eta 10 eguneko epean. Jabeak esanbidez uko egiten badiu eskaintzari, alderdiek, 20 eguneko epean, balioesteko eskumena duen organuari aurkeztuko dizkiote beren tasazio oinarrituak, nahitaezko desjabetzarenari buruzko legediari jarraikiz.

Larrialdiko ebazpenak berekin badakar lurak behin betiko hartzea eskatzen duten obrak gauzatea, behin betiko okupazio hori zehazten duen proiektua Foru Arau honetan aurreikusten denari jarraikiz tramitatuko da, eragin gabe aldi baterako okupazioari zeina, larrialdia ebazteko, aurretik tramitatu baitzen artikulua honetan zehazten den prozedurari jarraikiz.

10. PROPOSAMENA - 29. artikulua. - Auzolan.

Egungo idazketa:

Auzotarren onuran errepide eta bideak hobetzeko lanak auzolanean egiten direnean, udalek materialak eta bestelako baliabide ekonomiko eta teknikoak ipini ahal izango dituzte haiei laguntzeko.

Arrazoia: Iraungita

Proposamena: Artikulua ezabatzea, ez baita behar.

Proposamenaren idazketa:

11. PROPOSAMENA - 35. artikulua. - Artapen planak.

Egungo idazketa:

1.- Errepide eta bideen jabe diren administrazioek edo, kasua bada, ustia ketaren ardura duten entitateek behar bezala kontrolatu behar dute errepide eta bideen artapen egoera nolakoa den eta zer gorabehera eta kalte izan dituzten, eta, aldi berean, artapen planak egingo dituzte, bertan beren kontura egin beharreko jarduketak adierazirik.

2.- Artapen planetan ekitaldi ekonomiko bakoitzean egin beharko diren jarduketak jasoko dira, honako gaien inguruan:

a) lauguneak eta fabrika obrak zaintzea eta egokitzea.

b) bide-zoruak sendotzea eta birgaitzea.

c) instalazioak, bide seinaleak eta tangak jartzea.

d) trafikoak antolatzea.

e) errepide, bide eta bazterren tratamendua, estetikari eta inguruari begiratuta, eta ingurumenaren gaineko azterlanen ondorioz erabakitako neurri zuzentzaileen mantenimendua.

3.- Artapen planetan arreta berezia jarriko da istripu indize handieneko bide-zatietako segurtasuna hobetzeko balioko duten jarduketetan.

Arrazoiak: Errepikapena, ez da foru arauz arautzen.

Proposamena: Artikulua ezabatzea.

Proposamenaren idazketa:

12. PROPOSAMENA - 12 bis artikulua.- Eragindako beste batzuk ordeztuko eraikitako edo planta berriko zerbitzuak, sarrerak, bideak eta espaloiak

Egungo idazketa: Laugarren xedapen gehigarrian, honela dio: Lehen zeudenak berreginez administrazioak egingo dituen bideak udalaren jabetzakoak edota berregindako bide edo bideen jabearenak izango dira.

Arrazoiak: Edukiarengatik, ez da xedapen gehigarri batean jaso behar, baizik eta artikulua batean. Idazketa generikoegia da, eta ez da garbi geratzen zer irismen duen. Nahasketak sortzen ditu, argitu eta zehaztu behar direnak.

Proposamena: Artikulu bat gehitzea 37.aren ondoren.

Proposamenaren idazketa:

1. Eragindako beste batzuk ordeztuko eraikitako zerbitzu, sarrera, bide eta espaloiei dagokienez, funtzionamenduaren, mantenuaren eta artapenaren ardura eta betekizunak haien jatorrizko jabetza duen pertsonari, organismoari edo erakundeari dagokio. Ardura horiek gorabehera, lurzorua titulartasunak ezarritako sistema baten bidez eskuratu dituen administrazioarena izaten jarraitzen du. Horrela, lurzorua ardura eta hegalaren erabilera bereiziko dira.

Bide edo komunikazio-bide horiek doazen lur berdindua lehengoratzeko, lur-erazketako edo lubetako hiru metro baino garaiera handiagoko ezpondak sortu badira, ezegonkortasuna dela-eta ezponda horien ezohiko mantenua eraiki duen administrazioaren kontura joango da.

2. Ordeztutako edo planta berriko espaloiak, hiri higigarriak, balastradak eta galtzadaren bereizketazintarriaren atzean dauden elementu funtzionalak, zintarriak barne, dagokion udalaren titulartasunekoak izango dira. Aurreko kasuan bezala, hegalaren titulartasuna eta lurzorua titulartasuna bereizten dira.

13. PROPOSAMENA - 40. artikulua.- Erabilera orokorraren eta erabilera berezien mugak.

Egungo idazketa: 1. paragrafoa

Bidearen jabe den administrazioak, hala ere, errepidean edo bidean ibiltzeko zenbait muga ipini ahal izango dizkie ibilgailu jakin batzuei edo denei, errepidearen edo bidearen egoerak, segurtasunak edo zirkulazioaren gorabeherak hala eskatzen dutenean eta, mendietan, ingurunea babestu beharrak eskatzen duenean.

Arrazoiak: Autobide eta autobietan, mugek oinezkoei eta txirrindulariei ere eragin diezaiekete, ez ibilgailuei bakarrik.

Proposamena: Animaliak, oinezkoak edo txirrindulariak ere aipatu.

Proposamenaren idazketa:

Bidearen jabe den administrazioak, hala ere, errepidean edo bidean ibiltzeko zenbait muga ipini ahal izango dizkie ibilgailu, animalia, oinezko edo txirrindulari jakin batzuei edo denei, errepidearen egoerak, segurtasunak edo zirkulazioaren gorabeherak hala eskatzen dutenean eta, mendietan, ingurunea babestu beharrak eskatzen duenean.

14. PROPOSAMENA - 44. artikulua. - Sarbideak. Sarbideen ezaugarriak eta baldintzak.

Egungo idazketa:

1. Gipuzkoako Foru Aldundiaren errepideetan egiten edo aldatzen diren sarbideek aplikagarri zaizkien arau teknikoetan ezartzen diren ezaugarri eta baldintza guztiak bete behar dituzte eta, nolana ere, honakoak:

- a) Sarbidearen eta errepidearen lotuneko barne erradioak, biraketaren noranzkoan, 9 metro behar ditu gutxienez.
- b) Sarbidearen malda errepideko galtzadatik, eta, egonez gero, bazterbide edo arekatik, hasi eta lehen 10 metroetan ez da % 4koa baino handiagoa izango.
- c) Sarbidearen lehen 10 metroak asfaltoz, hormigoiez edo antzeko materialen batez bukatuak behar dute izan.
- d) Lotunetik hasi eta lehen 10 metroetan, sarbideak 5 metroko zabalera eduki behar du, gutxienez.

Pisuzko arrazoiak egonez gero eta salbuespen bezala, beste ezaugarri batzuek dituzten sarbideak onartu ahal izango dira.

2. Sarbideko ura errepidera iritsi baino lehen bildu behar da eta errepidera heltzen eta lauguneari erasaten utzi gabe modu egokian bideratu.

3. Sarbideetako seinaleak errepide edo bidearen jabe den administrazioak agintzen duen bezala jarriko dira.

4. Administrazioak seinalatuko du lotunea zehazki zein puntutan egingo den, zirkulazio segurtasunaren beharrei jarraituz.

5. Errepidearen eta beretako trafikoaren trinkotasunaren eta sarbidearen tipologiaren arabera, administrazioak baldintza hauetako bat edo hainbat jar ditzake.

- a) Azelerazio edo dezelerazio lerroak eskuin sarrera-irteeretarako.
- b) Lerro bereziak ezker biraketetarako.
- c) Maila desberdineko lotuneak.
- d) Beste soluzio berezi batzuk, esate baterako, biribilguneak eta semaforoak.

6. Errepide batera ematen duten bide partikularretan edo zerbitzubideetan, sarbideak behar bezala antolatzeke, administrazioak, baimena ematerakoan, baldintza gisa jar dezake, maniobrak egiten uzteko edo inguruko finketara joateko, aurrerago beharrezkotzat joko dituen erabilera mugapenak, bidezorrak edo kargak ipini ahal izatea.

Foru Arau honetako IV. tituluaren esaten denarekin bat etorritik, errepidearen babesgunean horrela ezarritako erabilera mugapen, zortasun edo kargak ez dute kalte-ordainik izango.

7. "Era berean, sarbideak antolatzeke, administrazioak berea du egindako sarbideak aldarazteko eskubidea, errepidearen onerako sarbidea kentzea, haren ordezkari beste bat egitea edo beste toki batera eramatea, komeni denean."

Arrazoiak: Komeni da idazketa Gipuzkoako errepideen errealitate topografikora egokitzea, kasuz kasu aztertu beharra zabalago utzita.

Proposamena: Aldatu

Proposamenaren idazketa:

1. Foru sareko errepideetan eraiki edo aldatzen diren sarbideek aplikaziozko arau teknikoetan eta segurtasuna eta arintasuna bermatzeko beharrezkoak direnetan aurreikusitako ezaugarri eta baldintzak beteko dituzte.

2. Errepidearen tipologiaren eta dauden edo aurreikusten diren trafiko trinkotasunen arabera, Administrazioak eskatu dezake hauek eraikitzea: azkartze edo mantsotze erriak, errei bereziak ezkerretara bira emateko, maila desberdinetako loturak, biribilguneak edo beste ebazpen berezi batzuk.

3. Sustatzen duenak dokumentu tekniko nahikoa aurkeztu beharko du ezaugarri geometrikoak definitzeko birei, maldei, ikusgarritasunari, zoruari eta seinalizazioari dagokienez. Dena dela, bost lehen metroetan amaiera asfaltikoa izango du, hormigoizkoa edo antzekoa, 100ko 4ko maldarekin edo arrapaladarekin gehienez.

4. Sarbideko ura errepidera iritsi baino lehen bildu behar da eta errepidera heltzen eta lauguneari erasaten utzi gabe modu egokian bideratu.

5.- Sarbideetako seinaleak errepide edo bidearen jabe den administrazioak agintzen duen bezala jarriko dira. Sarbidearen titularrari dagozkio seinale horien instalazioa eta mantenua.

6. Errepide batera ematen duten bide partikularretan edo zerbitzubideetan, sarbideak behar bezala antolatzeko, administrazioak, baimena ematerakoan, baldintza gisa jar dezake, maniobrak egiten uzteko edo inguruko finketara joateko, aurrerago beharrezkotzat joko dituen erabilera mugapenak, bidezorrak edo kargak ipini ahal izatea.

Foru Arau honetako IV. tituluaren esaten denarekin bat etorritik, errepidearen babesgunean horrela ezarritako erabilera mugapen, zortasun edo kargak ez dute kalte-ordainik izango.

7. Era berean, sarbideak antolatzeko, Administrazioak berea du egindako sarbideak aldarazteko eskubidea, errepidearen onerako sarbidea kentzea, haren ordeztu beste bat egitea edo beste toki batera eramatea, komeni denean.

15. PROPOSAMENA - 45. artikulua - Bazterguneak.

Egungo idazketa:

Lehentasunezko eta oinarrizko sareetako (Sare Gorria eta Laranja) errepideetan bidaiarien garraio publikoko ibilgailuentzako geraleku berriak jartzeko, bide segurtasuna bermatzen duten neurriak hartu beharko dira.

Arrazoiak: Bide segurtasuneko neurriak egokitu egin behar dira errepidearen maila edo sarea gorabehera. Hori begien bistakoa izanik, ez dio eragiten besteri, administrazioari bakarrik, bazterguneak ekimen publikokoak direlako, beti jabari publikoan daude, eta zonalde hori arautzen duten baimenpean eta kontrolpean daude.

Proposamena: Artikulua ezabatzea, ez baita behar.

Proposamenaren idazketa:

16. ARTIKULUA - 46. artikulua- Errepide eta bideen itxiturak

Egungo idazketa:

1. 1.- Ez da utziko bide ertzeko itxiturarik jartzen, bidearen bi ertzetan dauden lursailtako nekazaritza edo abeltzaintzako lanak arrazoiz egiteko ezinbesteko denean izan ezik eta bide horietatik jendea erraz ibiltzeko moduan egiten bada.

2. 2.- Beti egongo da debekatuta errepide itxiturak egitea; hortaz, abereak ez pasatzea lortu nahi bada, bestelako teknikaren bat erabili beharko da, Sare Lokalean bakarrik (Sare Horia eta Sare Grisa) eta salbuespenean emango direlarik baimenak.

Arrazoa: Bideetarako balio zuen. Errepideen kasua debekua begien bistakoa da, 38-41 artikuluen I. kapituluko III. tituluaren ezartzen den moduan.

Proposamena: Artikulua ezabatzea

Proposamenaren idazketa:

17. PROPOSAMENA - 48.6 artikulua - Informazio seinaleak

Egungo idazketa:

6. Gasolindegia aurretik iragartzeko seinaleetan berriazko araudia beteko da distantziei dagokienez.

Arrazoiak: Gasolindegi batzuk ezartzen dira baimena eskatu beharrik gabe, merkataritza edo industria poligonoetan daudelako, jarduera bat gehiago balira bezala, eta gero eskatzen da, argudioa izanda negozioa seinalizatzea errepideko erabiltzaileentzako zerbitzu bat dela.

Proposamena: Argitze eskaera

Proposamenaren idazketa:

6. Gasolindegia aurretik iragartzeko seinaleetan berriazko araudia beteko da distantziei dagokienez. Errepide zerbitzura ezarritako estazioak bakarrik seinalizatuko dira, ez industria edo zerbitzu zonaldeetako merkataritzako jarduera ekonomiko gisa ezarrita daudenak.

18. PROPOSAMENA - 51.3. artikulua.- Kalteen erantzukizuna.

Egungo idazketa:

3.- Eskatuko den diru kopurua kalteak konpontzearen ordaina izango da eta administrazio premiamenduz ahal izango da.

Arrazoia: Badira beste kostu batzuk erreposizio hutsez harago, orain ezin kobratu direnak. 37/2015 Legeak, irailaren 29koak, errepideei buruzkoak, Estatuko errepide sareari dagokionez horrela ezartzen du.

Proposamena: Apartatua Lege horri jarraikiz aldatzea.

Proposamenaren idazketa:

3.- Eskatzen den zenbatekoa konponketa kostua izango da. Hari gehitu ahal izango zaio langile bidezko laguntza publikoaren esku hartzeak berekin dakarren kostuaren ordaina –dela baliabide propioen bidez, dela kontratatuen bidez–, seinalizatze edo balizamenduak, ibilgailu zaintzak edo kargak eta hondarrak kentzea istripua edo matxura badago.

4.- Zenbatekoa premiamenduzko bide administratibotik eskatu ahal izango da.

19. PROPOSAMENA - 58. artikulua.- Zerbitzuguneak eta gasolindegia.

Egungo idazketa:

1. Hurrengo paragrafoetan ezarritakoa alde batera utzi gabe, zerbitzugune eta gasolindegia beren arautegien bidez erregulatuko dira.
2. Eraiketak izaera orokorrez ezarritako distantzietara egongo dira.

Hala ere, instalazioak distantzia gutxiagora jarri ahal izango dira, hurrengo bi paragrafoetan erabakitakoa bermatzen bada eta galtzadaren ertzetik edo kanpoko murratik gutxienez ondoko distantzia hauek gordetzen badira:

Metroak

- Lehentasunezko eta oinarrizko sareetako autobide eta autobiak (Sare Gorria eta Sare Laranja): 15
- Lehentasunezko eta oinarrizko sareetako gainerako errepideetan (Sare Gorria eta Laranja): ..12
- Eskualde Sareko errepideetan (Sare Berdea): 8 m12
- Sare Lokaleko errepideetan (Sare Horia eta Grisa):8

3. Aparkatzeko eta maniobratzeko lauguneak nahikoa espazio izango du eta drainadura egokia eduki behar du.
4. Errepiderako zuzeneko sarbideen ezaugarriak eta baldintzak foru arau honetako III. tituluaren aurreikusitakoari lotuko zaizkio hertsiki.

Arrazoiak: Eraikuntzen arteko distantzia generikoak gehiegizkoak dira zerbitzu estazioen egungo diseinuetarako, zeinak kontrola eta ordainketa baitute irteeran. Komeni da orain definitu gabe dauden alderdi batzuk arautzea.

Proposamena: Idazketa aldatzea eta 4. eta 5. apartatuak gehitzea.

Proposamenaren idazketa:

1. Hurrengo paragrafoetan ezarritakoa alde batera utzi gabe, zerbitzugune eta gasolindegia eta bertarako sargune zuzenak beren arautegien bidez eta Foru Arauaren III. tituluaren aurreikusitakoaren bidez erregulatuko dira.
2. Erregaien salmentaren instalazio eta eraikuntzak galtzadaren mugatik eta kanpo lerrotik distantzia hauetara kokatu ahal izango dira gutxienez:

Metroak

- Lehentasunezko eta oinarrizko sareetako autobide eta autobiak (Sare Gorria eta Sare Laranja): 15
- Lehentasunezko eta oinarrizko sareetako gainerako errepideetan (Sare Gorria eta Laranja): ..12
- Eskualde Sareko errepideetan (Sare Berdea): 8 m12
- Sare Lokaleko errepideetan (Sare Horia eta Grisa):8

3. Gainerako eraikinak izaera orokorrez ezarritako distantzietara egongo dira.
4. Autobideetan, autobidetan, errepide errean aniztunetan eta sarbide kontrolatuko errepideetan, ezin ezingo da lotura errodatu izan zerbitzugunearen edo gasolindegia eta finka edo inguruko bideen artean.
5. Instalazioaren titularrari dagokio errepidean eta inguruan doazen seinaleak eta balizamenduak jartzea, artatzea eta mantentzea; orobat dagokio sarbide-adarrak jartzea, artatzea eta mantentzea, sartzeko edo ateratzeko adarraren marra zuriaren barruko aldea eta errepidearen marra zuriaren kanpoko aldea bereizten diren puntutik.

20. PROPOSAMENA - 60.4 eta 60.5 artikulua - Finken itxitura.

Egungo idazketa:

Itxitura arinak jartzeko garaian gutxienez ondoko distantzia hauek errespetatuko dira, galtzadako ertz edo kanpoko lerrotik:

Autobideak eta autobiak: 8 metro.
Lehentasunezko Sareko errepide arruntak (Sare Gorria): 3 metro.
Oinarrizko Sareko errepide arruntak (Sare Laranja): 3 metro.
Eskualde Sareko errepideak (Sare Berdea): 3 metro.
Sare Lokaleko errepideak (Sare Horia eta Grisa): 2 metro.
Bideak: 1 metro.

Errepideetan, lubeta gainean dauden ertzetan, distantzia txikiagora jartzea baimendu ahal izango da, baina inoiz ez bi metro baino gutxiagora, eta betiere itxituraren goiko aldea galtzadaren sestra baino beherago geratzen bada.

Fabrika obrako itxiturak jartzeko garaian gutxienez ondoko distantzia hauek errespetatuko dira, lauguneko ertz edo kanpoko lerrotik:

Autobideak eta autobiak: 8 metro.
Lehentasunezko Sareko errepide arruntak (Sare Gorria): 8 metro. 8 metro.
Oinarrizko Sareko errepide arruntak (Sare Laranja): 8 metro. 8 metro.
Eskualde Sareko errepideak (Sare Berdea): 8 metro. 3 metro.
Sare Lokaleko errepideak (Sare Horia eta Grisa): 3 metro. 3 metro.
Bideak: 3 metro. 3 metro.

Honelako kasuetan, itxituratik laugunearen kanpoko ertzearainoko distantzia gutxienez itxituraren garaiera halako bat eta erdi izango da, eta garaiera hori ezin izango da inoiz lau (4) metrotik gorakoa izan.

Lur eremu hiritarrean edo hiritargarran, hirigintzako plan eta agirietan ezarritako distantzia gordeko da, betiere plan edo agiriok onartu baino lehenago foru errepideen sarearen titularitatea duen departamentuak aldeko irizpena eman badie, baina inoiz ez da izango galtzadaren kanpoko ertz edo marratik hiru metrokoa baino txikiagoa.

Arrazoa: Errepide errean aniztunen mugak gehitzea

Proposamena: Idazketa aldatzea.

Proposamenaren idazketa:

Itxitura arinak jartzeko garaian gutxienez distantzia hauek errespetatuko dira, galtzadako ertz edo kanpoko lerrotik:

Autobideak eta autobiak: 8 metro.
Errepide errean aniztunak eta lehentasunezko Sareko errepide arruntak (Sare Gorria) eta
Oinarrizko Sareko errepide arruntak (Sare Laranja): 3 metro.
Eskualde Sareko (Sare Berdea) eta Tokiko Sareko (Sare Horia) errepideak: 2 metro.

Kasu guztietan distantzia handiagoa izan daiteke bidetik doazen ibilgailuen ikusmena ez mugatzearen. Ganaduaren ekintzak lubetaren oinarria kaltetzen badu, eskatu liteke atzera eramateko, oinarri horretatik 0,50 metrora.

Tokiko sareko errepide arruntetan, artzain elektriko motako behin-behineko itxiturak metro bateko distantziara jarri ahal izango dira, betiere ikusmenari kalte egin gabe edo ibilgailu edo erabiltzaileen segurtasunari kalterik eragin gabe.

5.- Fabrika obrako itxiturak jartzeko garaian gutxienez distantzia hauek errespetatuko dira, lauguneko ertz edo kanpoko lerrotik:

Autobideak eta autobiak:8 metro.

Errepide erreai aniztunak eta lehentasunezko Sareko errepide arruntak (Sare Gorria) eta

Oinarrizko Sareko errepide arruntak (Sare Laranja):8 metro.

Eskualde Sareko (Sare Berdea) eta Tokiko Sareko (Sare Horia) errepideak:3 metro.

Horrelako kasuetan, itxituratik laugunearen kanpoko ertzerainoko distantzia gutxienez itxituraren garaiera halako bat eta erdi izango da, eta garaiera hori ezin izango da inoiz lau (4) metrotik gorakoa izan.

Lur eremu hiritarrean edo hiritargarran, hirigintzako plan eta agirietan ezarritako distantzia gordeko da, betiere plan edo agiriok onartu baino lehenago foru errepideen sarearen titularitatea duen departamentuak aldeko irizpena eman badie.

21. PROPOSAMENA - 63. artikulua.- Hondakindegia eta zabortegeiak
65. artikulua.- Lurketak. Indusketak

Egungo idazketa:

63. artikulua.- Hondakindegia eta zabortegeiak.

1.- Hondakindegi eta zabortegeiak egiteko gutxienez ondoko baldintzak betetzea eskatuko da:

- a) Botatzen hasi aurretik behin-behineko sarbidea moldatuko da foru arau honetan aurreikusitako erradio, malda eta gainerako baldintzetan.
- b) Era berean, errepide edo bideko lursailak mugatu eta zedarritu egin behar dira aldeztu aurretik.
- c) Kontrako berariazko baimenik ez badago, botako diren hondakinek ez dute errepide edo bidearen sestra inon gaudituko.
- d) Errepide edo bidearen garbiketa ziurtatzeko, behar adinako instalazioak egin edo jarri behar dira.
- e) Baimendutako lanak amaitu ondoren, lursaila behar bezala egokituta utziko da.

2.- Hondakindegi eta zabortegeietarako emango diren baimenak beti epe baterako izango dira.

65. artikulua.- Lurketak. Indusketak

1.- Duten xede edo helburua ikusita baimen daitezkeen lurketak eta indusketak bakarrik egin daitezke.

2.- Dena dela, ezingo da ez drainadura ez saneamendua ukitu, eta ezta errepide edo bidearen laugunearen egonkortasuna aldatu ere.

Arrazoiak: Hondakindegi eta zabortegei hitzak ez dira egun erabiltzen, baimendu ezin diren konnotazioak dituztelako. Lurketak eta betelanak dira beti. 65. artikulua antzeko zerbait duenez mintzagai, batzea proposatzen da, eta idazketara egokitzea.

Proposamena: Idazketa bateratzea eta aldatzea.

Proposamenaren idazketa:

65. artikulua.- Lurketak eta betelanak.

1. Baimentzeko, kontuan izango da kalterik ez eragitea errepideari edo ustiategiari, lur-berdinketa ez aldatzea, ikusgarritasuna ez mugatzea eta drainatzea ez aldatzea errepidearen edo besteren kaltetan. Bermatzeko, eskatu ahal izango da azterketak egiteko eta egokiak diren neurriak hartzeko.

2. Lanekin hasi aurretik, behin-behineko sarrera bat egingo da, foru arau honetan aurreikusten diren baldintzak betetzen dituen. Bertan, instalazioak ezarriko dira, beharrezkoak direnak pneumatikoen garbitasuna bermatzeko, errepidean sartu aurretik.

3. Lan baimenduak amaituta, sarbidea itxiko da, jabari publikoko eremua lehengoratuko da egungo egoera berrira egokituta eta lurrazala egokituko da ingurumen integraziori mesede egiteko.

4. Pisua dela-eta mugatuta dauden errepideetan (ondorioz, ibilgailu pisutsuen joan-etorriengatik kalteak jasan ditzaketan), eskaera egiten duenari eskatu ahal izango zaio zoruaren egoerari eta balizko garapenari buruzko azterketa bat egiteko. Lanek kalteak eragiten badituzte eta, ondorioz, bizitza erabilgarria laburtzen badute, eskatuko da neurriak hartzea (obrak egitea edo dirua ordaintzea), hartara jatorrizko egoerara lehengoratzeko.

5.- Baimen horiek beti epean eskatuko dira.

22. PROPOSAMENA - 73. artikulua.- Lerrokaduraz kanpoko eraikinak eta bestelako elementuak

Egungo idazketa:

1. Egun dauden eta arau honek legez baimendutako distantziara baino gutxiagora dauden eraikinak, eraiketak eta instalazioak lerrokaduraz kanpoko deklaratzeko dira.
2. Lerrokaduraz kanpoko eraikin eta gainerako elementuak direnean, horiek konpondu, zaindu edo birgaitzeko jarduera, lan edo obretarako bakarrik eman daiteke baimena, betiere ez badakarte bolumena handitzea ez eta balioa gehitzea ere. Lerrokadurak edo sarbideak aldatzea badakarte, zirkulazioaren segurtasuna hobetzen bada bakarrik baimendu ahal izango dira.
3. Dena dela, lerrokaduraz kanpoko eraikin eta gainerako elementuetan jarduera, lan edo obrak egin ahal izango dira bakarrik eraikin horiek bota, erretiratu edo lekuz aldatzea beharrezko ez denean, Errepideetako Lurralde Planean edo jada onartu eta tramitatze egoeran dagoen proiektu batean aurreikusitako jarduketek horrela eskatzen dutelako.
4. Ezets daitezke obra baimenak, baita halaber, eraikina, eraiketa edo instalazioa aurri egoeran badago. Eraikin, eraiketa edo instalazioaren bat aurri egoeran dagoela aitortzeko, egiturazko edo funtsezko elementuak oro har hondatuta behar ditu izan, edo egin behar zaizkion obren kostuak eraikin, eraiketa edo instalazio horren balio eguneratuak baino % 50 handiagoa behar du izan, luraren balioa kenduta.
5. Aurreko puntuetan ipinitako mugapenek ez dute kentzen ezarririk dauden arauak bete beharra, interes historikoa, artistikoa edo kulturala dutelako katalogaturik dauden eraikin edo elementuak artatzea eta baliaraztea xede denean.

Arrazoiak: Gipuzkoan, etxe eta baserri barreiatu asko daude errepideetatik gertu (maiz, errepidea bera eraiki aurrekoak), ezin dutenak egin zabaldua txikirik, nahiz hirigintza araudiak baimendu, "bolumen handitze" bat delako. Mugatze horrek, ohikoa errepideetako araudian, desagertzen ari da, mentalitate paternalista eta protekzionista baten isla zelako. Ezarri zen baserriak bere desjabetze balioa handitu ez zezan baldin eta errepidearen ondorengo hobetze batek eragiten bazion. Baina muga hori betiko zen eta ez zen kalte-ordainik ordaintzen. Eta hori abusu bat da. Mugaketa denboran ere mugatu behar da, edo errepidea hobetuko den aurreikuspen benetako bat, eragingo diona, dagonenean.

Proposamena: Idazketa aldatzea.

Proposamenaren idazketa:

1. Egun dauden eta arau honek ezarritako distantziara baino gutxiagora dauden eraikinak, eraiketak eta instalazioak lerrokaduraz kanpoko deklaratzeko dira.
2. Lerrokaduraz kanpoko eraikin eta gainerako elementuetan baimendu daitezke konponketa, mantentze eta lehengoratzeko lanak, baita dauden lerrokatzeak errepidera gerturatzen ez dituztenak ere, udal hirigintza planteamenduak ematen dituen eraikuntza eskubideei jarraikiz. Errepidera gerturatzeari dagokionez, ez dira kontuan hartuko balkoiak eta atxikitako portxe estaligabeak.
3. Dena dela, lerrokaduraz kanpoko eraikin eta gainerako elementuetan jarduera, lan edo obrak baimendu ahal izango dira bakarrik eraikin horiek bota, erretiratu edo lekuz aldatzea beharrezko ez denean errepideetako lurralde planean edo jada onartu eta tramitatze egoeran dagoen proiektu batean.
4. Obrak ukatu egingo dira udal hirigintza planteamenduak antolaketaz erakina, eraiketa edo instalazioa kanpokotzat jotzen duenean.
5. Aurreko puntuetan ipinitako mugapenek ez dute kentzen ezarririk dauden arauak bete beharra, interes historikoa, artistikoa edo kulturala dutelako katalogaturik dauden eraikin edo elementuak artatzea eta baliaraztea xede denean.

23. PROPOSAMENA - 77.4 artikulua.- Administrazioaren baimena

Egungo idazketa:

4. Baimena eskatu beharretik salbuetsita geratzen dira:

a) Errepide eta bideetako joan-etorria eta babesguneetako nekazaritza edo lorezaintzako lanak, zuhaitz eta zuhaixken mozketa edo landaketa izan ezik.

b) Administrazioak, bideen jabe gisa, artatu, zaindu, hobetu edo ustiatzeko egingo dituen jarduera, lan eta obrak eta zirkulazio, eta bide segurtasun arloan dituzten eskumenak erabiliz beste administrazioek egingo dituzten jarduketak.

d) Indarrean dagoen plangintzak lur hiritar gisa espresuki sailkatutako lurreen eta galtzadaren ertzetik edo kanpoko marrantik 18 metro baino gehiagora egiten diren jarduera, lan eta obrak.

Arrazoiak: Egun nahasmena dago trafiko eta bide segurtasunean eskumena duten beste administrazio batzuek nola jokatzeko duten (Ertzaintza, Dirección, EJKo Trafiko Zuzendaritza...). Idazketa garbiago bat adostu da beraiekin.

Proposamena: Idazketa aldatzea.

Proposamenaren idazketa:

4. Baimena eskatu beharretik salbuetsita geratzen dira:

a) Errepide eta bideetako joan-etorria eta babesguneetako nekazaritza edo lorezaintzako lanak, zuhaitz eta zuhaixken mozketa edo landaketa izan ezik.

b) Bidearen titularra den administrazioak egiten dituen jarduerak, lanak eta obrak bidea artatzeko, mantentzeko, hobetzeko edo ustiatzeko.

c) Beste administrazio batzuek egiten dituzten jarduerak eskumenak dituztelako polizia, trafiko eta bide segurtasun alorretan, baldin eta behin betiko elementu edo instalazioak jarri beharrik ez badago. Gai horiekin zerikusia duten instalazioen mantenu lanak direnean, administrazio titularrari jakinarazi beharko diote aurretik.

d) Indarrean dagoen plangintzak lur hiritar gisa espresuki sailkatutako lurreen eta galtzadaren ertzetik edo kanpoko marrantik 18 metro baino gehiagora egiten diren jarduera, lan eta obrak.

24. PROPOSAMENA - 96. artikulua.- Definizioa, sailkapena eta tipifikazioa

Egungo idazketa:

1.- Urraketa administratibotzat hartuko dira foru arau honetako aginduak hausteagatik, artikulua honetan horrela tipifikatzen diren egintza eta omisio ez-zilegiak.

2.- Urraketak izan daitezke:

- 1) arinak
- 2) larriak
- 3) oso larriak

3.- Urraketa arintzat hartuko dira:

a) Errepidearen herri jabariko guneeetan edo babesguneeetan obra, instalazio edo jarduketa onartugabeak egitea, behar diren baimenak edo lizentziak eduki gabe, edo emandako baimenean ezarritako baldintzaren bat ez betetzea, egoera gero legeztagarria baldin bada.

b) Herri jabariko gunean edozein motatako materialak edo gauzak jartzea, isurtzea, botatzea, abandonatzea edo, kargak egoki jarrita daudela bermatzeko obligazioa ez betetzeagatik, erortzen uztea, betiere bide segurtasunari eragiten ez badio, bestela urraketa larria izango bailitzateke.

c) Laugunean edo herri jabariko gunean landaketa edo erabilera-aldaketa onartugabeak egitea, behar den baimenik gabe edo emandako baimenean ezarritako baldintzak bete gabe, betiere bide segurtasunari eragiten ez badio, bestela urraketa larria izango bailitzateke.

d) Foru jabetzako azpiegiturak erabiltzeko kanona ez ordaintzea bide azpiegitura erabiltzerakoan, kanona ordaindu beharra dagoen kasuetan.

4.- Urraketa larriak izango dira:

a) Errepidearen herri jabariko guneeetan edo babesguneeetan obra, instalazio edo jarduketa onartugabeak egitea, behar diren baimenak edo lizentziak eduki gabe, edo emandako baimenean ezarritako baldintzaren bat ez betetzea, egoera gero legeztaezina baldin bada.

b) Zirkulazioaren antolamendu, orientazio eta segurtasunarekin zuzeneko lotura duen errepideko edozein elementu hondatzea, edo elementu horien ezaugarriak edo kokalekua nahita aldatzea.

c) Errepidearen nahiz horren elementu funtzionalen edozein obra edo instalazio suntsitzea, hondatzea, aldatzea edo aldatzea.

d) Galtzadan edo bazterbidean edozein motatako materialak edo gauzak jartzea, isurtzea, botatzea, abandonatzea edo, kargak egoki jarrita daudela bermatzeko obligazioa ez betetzeagatik, erortzen uztea.

e) Pintadak egitea galtzadan, hormetan, seinaleetan eta errepide edo bideko bestelako elementuetan, horien helburua dena dela.

f) Laugunean edo herri jabariko gunean aireko edo lurpeko gurutzaketa onartugabeak egitea, behar den baimena izan gabe edo emandako baimenean ezarritako baldintzak bete gabe.

g) Herri jabariko gunean edo babesgunean informazio kartelak baimenik gabe jartzea.

h) Egintza eta omisioen bidez, administrazio eskudunari errepide eta bideak ustiatu eta zaintzeko zereginak betetzen eragozteak.

i) Urraketa larriak dira, halaber, arintzat hartzen direnak baina berrerortzea dagoenean. Ondorio hauetarako, berrerortzea dagoela kontsideratuko da urtebeteko epearen barruan erantzule berak beste urraketaren bat egin eta behin betiko ebazpen baten bidez jada deklaratu eta zigortua badago.

5.- Urraketa oso larriak izango dira:

- a) Babesguneetan, ezarritako gutxieneko distantziak baino gertuago, etxebizitza, merkataritza edo industriarako eraikinak egitea edo daudenak handitzea espresuki emandako baimenik gabe.
- b) Zirkulazioaren antolamendu, orientazio eta segurtasunarekin zuzeneko lotura duen errepideko edozein elementu ostea, hondatzea edo suntsitzea, edo elementu horien ezaugarriak edo kokalekua nahita aldatzea, elementu horrek bere eginkizuna bete dezan eragozten denean.
- c) Errepidearen nahiz horren elementu funtzionalen edozein obra edo instalazio suntsitzea, hondatzea, aldatzea edo aldatzea, jarduketa horrek galtzadari edo bazterbideari eragiten dionean.
- d) Errepidearen erabiltzaileentzat arriskutsuak, gogaikarriak edo osasungaitzak diren edozein motatako instalazioak jartzea edo jarduerak egitea, hala izan dadin saihesteko neurriak hartu gabe.
- e) Makineria, materialak edo nolana hiko objektuak, baimenik gabe edo egoki seinalatu gabe, errepide edo bidean uztea edo jartzea, edota haiekin bidea okupatzea.
- f) Errepidean kalteak edo hondamenak egitea, baimendutako mugak gainditzen dituzten zama edo kargak eramanez.
- g) Errepidearen herri jabariko gunetik ikus daitekeen edozein motatako publizitatea ezartzea.
- h) Bidearen herri jabariko gunean edo babesgunean lur mugimenduak, indusketak eta horrelako lanak egitea, errepidearen edo bidearen egituren edo laugunearen egonkortasunari kalte eginez edo egonkortasun hori arriskuan jarritz.
- i) Errepide edo bidearen edota han dabiltzaneren segurtasunerako Administrazioak emandako betearazte-aginduak ez betetzea.
- j) Foru arau honetan ezarritako legezko zortasunek ematen dituzten ahalmen eta eskubideak legitimoki erabiltzen ez uztea edo aurka egitea.
- k) Ekintzak edo omisioak egitea, puskaketa, kalte edo galerak nahita eraginez errepide eta bideetan edota bidearen herri jabarikoak diren edozein motatako elementu edo ondasunetan.
- l) Urraketa oso larriak dira, halaber, larritzat hartzen direnak baina berrerortzea dagoenean. Ondorio hauetarako, berrerortzea dagoela kontsideratuko da urtebeteko epearen barruan erantzule berak beste urraketa larriren bat egin badu eta behin betiko ebazpenaz jada deklaratu eta zigortua badago.

Arrazoiak: Urraketa arin, larri eta oso larri sailkapenarekin jarraitzen da, baina azalpen ordena aldatzen da; hartara, oso larriekin hasten da, harreman bat ezartzen baita. Horrela, kasu batzuetan urratze bat larritu egin daiteke berrerortzearen poderioz edo arindu kalterik eragin ez duten elementuak kentzen badira.

Proposamena: Ordena eta idazketa aldatzea.

Proposamenaren idazketa:

1.- Urraketa administratibotzat hartuko dira foru arau honetako aginduak hausteagatik, artikulua honetan horrela tipifikatzen diren egintza eta omisio ez-zilegiak.

2.- Urraketak izan daitezke: Oso larriak, Larriak edo Arinak.

3.- Urraketa oso larriak izango dira:

a) Planta berriak eraikitzea edo eraikinak edo eraiketa finkoak zabaltzea arau honek ezartzen dituenak baino distantzia txikiagoetara edo ezarritako mugak errespetatu gabe.

b) Jabari publikoko gunetan obra, instalazio edo jarduketa onartugabeak egitea, behar diren baimenak eduki gabe, edo emandako baimenean ezarritako baldintzaren bat bete gabe, egoera legezta ezina baldin bada.

c) Zirkulazioaren antolamendu, orientazio eta segurtasunarekin zuzeneko lotura duen errepideko edozein elementu oatea, hondatzea edo suntsitzea, edo elementu horien ezaugarriak edo kokalekua nahita aldatzea, elementu horrek bere eginkizuna bete dezan eragozten denean.

d) Errepidearen nahiz horren elementu funtzionalen edozein obra edo instalazio suntsitzea, hondatzea, aldatzea edo aldatzea, jarduketa horrek galtzadari edo bazterbideari eragiten dionean edo bide segurtasunari eragin diezaiokeenean.

e) Errepidea edo bertako elementu funtzionalak kaltetzea, baimen mugetatik gaineko pisu, zama edo galiboekin.

f) Galtzada edo bazterbideak zikintzea bide segurtasunari eragiten dioten material edo elementuekin.

g) Errepidearen herri jabariko gunetik ikus daitekeen edozein motatako publizitate debekatu ezartzea.

h) Kartelak edo pankartak jartzea, dena delakoak, errepidearen jabari publikoaren eremutik ikusi daitezkeena eta, ondorioz, gidariari arreta galarazi diezaioketenak.

i) Elementu argitsuak, fokuak, argi-sortak edo antzekoak jartzea, gidaria itsutu ditzaketenak.

j) Bidearen herri jabariko gunean edo babesgunean lur mugimenduak, indusketak eta horrelako lanak egitea, errepidearen egituren edo laugunearen egonkortasunari kalte eginez edo egonkortasun hori arriskuan jarritz.

k) Errepidearen edota han dabiltzanen segurtasunerako Administrazioak emandako betearazte-aginduak ez betetzea.

l) Foru arau honetan ezarritako legezko zortasunek ematen dituzten ahalmen eta eskubideak legitimoki erabiltzen ez uztea edo aurka egitea.

m) Ekintzak edo omisioak egitea, puskaketa, kalte edo galerak nahita eraginez errepide eta bideetan edota bidearen herri jabarikoak diren edozein motatako elementu edo ondasunetan.

n) Urraketa oso larriak dira, halaber, larritzat hartzen direnak baina berrerortzea dagoenean. Berrerortzea dagoela esango da urratze oso larriak iraungitzeko epearen barruan arduradun berak urratze larri bat egin badu.

4.- Urraketa larriak izango dira:

a) Planta berriak eraikitzea edo eraikinak edo eraiketa finkoak zabaltzea arau honek ezartzen dituenak baino distantzia txikiagoetara edo ezarritako mugak errespetatu gabe, baldin eta gauzak lehengoratu badira kalterik eragin gabe.

b) Jabari publikoko guneetan obra, instalazio edo jarduketa onartugabeak egitea, behar diren baimenak eduki gabe, edo emandako baimenean ezarritako baldintzaren bat bete gabe, egoera legeztatzen baldin bada eta gauzak lehengoratu badira kalterik eragin gabe.

b) Jabari publikoko guneetan obra, instalazio edo jarduketa onartugabeak egitea, behar diren baimenak eduki gabe, edo emandako baimenean ezarritako baldintzaren bat bete gabe, egoera legeztatzen baldin bada eta gauzak lehengoratu badira edo berriz jarri badira kalterik eragin gabe.

c) Zirkulazioaren antolamendu, orientazio eta segurtasunarekin zuzeneko lotura duen errepideko edozein elementu hondatzea, edo elementu horien ezaugarriak edo kokalekua nahita aldatzea, elementu horrek bere eginkizuna bete dezan eragozten ez denean.

d) Errepidearen nahiz horren elementu funtzionalen edozein obra edo instalazio suntsitzea, hondatzea, aldatzea edo aldatzea, jarduketa horrek galtzadari edo bazterbideari eragiten ez dionean edo bide segurtasunari eragin ezin dionean.

Erortzen uztea itxituren, hormatxoaren edo zuhaitzen mantenu eskasagatik; erortzen uztea kargak behar ez bezala jartzeko betekizuna ez betetzeagatik; materialak, ibilgailuak, adarrak edo edozein objektu galtzadan edo bazterbidean jartzea, isurtzea, uztea, botatzea edo abandonatzea.

g) Galtzada edo bazterbideak zikintzea bide segurtasunari eragiten dioten material edo elementuekin, baldin eta garbitu bada hirugarrenik kalterik eragin gabe.

h) Pintadak egitea galtzadan, hormetan, seinaleetan eta errepide edo bideko bestelako elementuetan, horien helburua dena dela.

i) Errepidearen herri jabariko gunetik ikus daitekeen edozein motatako publizitate debekatu ezartzea.

j) Kartelak edo pankartak jartzea, dena delakoak, errepidearen jabari publikoaren eremutik ikusi daitezkeena eta, ondorioz, gidariari arreta galarazi diezaioketenak, baldin eta kentzen badira hala eskatzen zaienean.

k) Elementu argitsuak, fokuak, argi-sortak edo antzekoak jartzea, gidaria itsutu ditzaketenak, baldin eta kentzen badira hala eskatzen zaienean.

l) Babes eremuan errepidearen erabiltzaileentzako jarduera arriskutsuak, gogaikarriak edo osasunaren aurkakoak egitea, neurririk hartu gabe hori saihesteko.

m) Egintza eta omisioen bidez, administrazio eskudunari errepideak ustiatu eta zaintzeko zereginak betetzen eragozte.

n) Urraketa larriak dira, halaber, arintzat hartzen direnak baina berrerortzea dagoenean. Berrerortzea dagoela esango da urratze larriak iraungitzeko epearen barruan arduradun berak urratze arin bat egin badu.

3.- Urraketa arintzat hartuko dira:

b) Jabari publikoko edo babeseko guneeetan obra, instalazio edo jarduketa onartugabeak egitea, behar diren baimenak eduki gabe, edo emandako baimenean ezarritako baldintzaren bat bete gabe, egoera legeztagarria baldin bada.

b) Babes guneeetan obra, instalazio edo jarduketa onartugabeak egitea, behar diren baimenak eduki gabe, edo emandako baimenean ezarritako baldintzaren bat bete gabe, egoera legeztaezina baldin bada eta gauzak lehengoratu badira kalterik eragin gabe.

d) Galtzadan edo bazterbidean kanpoko lur berdindu edo jabari publikoan edozein motatako materialak edo gauzak jartzea, isurtzea, botatzea, abandonatzea edo, kargak egoki jarrita daudela bermatzeko obligazioa ez betetzeagatik, erortzen uztea.

d) Ezarritako unean foru jabetzako azpiegiturak erabiltzeko kanona ez ordaintzea bide azpiegitura erabiltzerakoan, kanona ordaindu beharra dagoen kasuetan.

25. PROPOSAMENA - 103. artikulua. - Isunak.

Egungo idazketa:

1.- Arau honetan tipifikatutako urraketa administratiboak isunaren bidez zigortuko dira.

2. Urraketen larritasuna aintzat hartuta, isunen zenbatekoak ondoko hauek izango dira:

A.- Lehentasunezko, oinarrizko eta eskualde sareetan (Sare Gorria, Laranja eta Berdea):

- Urraketa arinak: 150,00 eta 2.000,00 euro bitartekoak.
- Urraketa larriak: 2.000,00 eta 8.000,00 euro bitartekoak.
- Urraketa oso larriak: 8.000,00 eta 150.000,00 euro bitartekoak.

B.- Sare Lokalean (Sare Horia eta Grisa):

- Urraketa arinak: 100,00 eta 1.000,00 euro bitartekoak.
- Urraketa larriak: 1.000,00 eta 4.000,00 euro bitartekoak.
- Urraketa oso larriak: 4.000,00 eta 75.000,00 euro bitartekoak.

C.- Bideetan:

- Urraketa arinak: 60,00 eta 600,00 euro bitartekoak.
- Urraketa larriak: 600,00 eta 2.400,00 euro bitartekoak.
- Urraketa oso larriak: 2.400,00 eta 45.000,00 euro bitartekoak.

3.- Isunak kuantifikatzerakoan kontuan hartu behar dira urraketa horretatik herri jabarirako edo bidearen erabiltzaileentzat etorri den edo etor daitekeen arrisku objektiboa eta, era berean, nahita egin den edo berriz egindako urraketa den.

Era berean, kontuan hartuko dira obren edo instalazioen balioa eta eragindako kalte edo galerena.

Dena dela, isunak kuantifikatzerakoan kontuan hartuko da urraketa horretatik atera duen onura. Onura hori jarritako isunaren zenbatekoa baino handiagoa bada, onuraren zenbatekoraino igoko da isuna ere.

4.- Erantzukizunaren aringarri izango da, eta, ondorioz, isunen zenbatekoa murriztu daiteke, bere borondatez edota administrazio eskuduneko agintarien lehen errekerimenduan urraketa bidez sortutako egoera zuzentzen saiatzea.

5.- Urraketa beraren ondorioz erantzule bat baino gehiago badaude, isunek beren artean izaera independentea edukiko dute.

Arrazoa: Zenbatekoak eguneratu beharko dira. Sare berdea horiaren mailan jartzen da, antzekoak baitira geometriaz, funtzioez eta erabileraz.

Proposamena: Aldatu.

Proposamenaren idazketa:

1.- Foru Arau honetan tipifikatutako administrazio urratzeak zigortuko dira, larritasunaren eta sare motaren arabera, isun hauekin:

A.- Lehentasunezko, oinarrizko sareetan (Sare Gorria eta Laranja):

- Urraketa arinak: 200,00 eta 3.000,00 euro bitartekoak.
- Urraketa larriak: 3.000,00 eta 10.000,00 euro bitartekoak.

– Urraketa oso larriak: 10.000,00 eta 200.000,00 euro bitartekoak.

B.- Eskualde Sarean (Sare Berdea) eta Tokiko Sare Horian:

– Urraketa arinak: 150,00 eta 1.500,00 euro bitartekoak.

– Urraketa larriak: 1.500,00 eta 5.000,00 euro bitartekoak.

– Urraketa oso larriak: 5.000,00 eta 100.000,00 euro bitartekoak.

C.- Tokiko Sare Grisean:

– Urraketa arinak: 80,00 eta 800,00 euro bitartekoak.

– Urraketa larriak: 800,00 eta 2.400,00 euro bitartekoak.

– Urraketa oso larriak: 2.400,00 eta 48.000,00 euro bitartekoak.

3.- Isunak kalkulatzeko, kontuan izango dira eragin den arriskua, obra edo instalazioen balioa, jabari publikoari edo hirugarrenei eragindako kalteen balioa eta jarduketa arau-hauslearen asmoa eta berrerortzea.

Dena dela, isunak kuantifikatzerakoan kontuan hartuko da urraketa horretatik atera duen onura. Onura hori jarritako isunaren zenbatekoa baino handiagoa bada, onuraren zenbatekoraino igoko da isuna ere.

4.- Erantzukizunaren aringarri izango da, eta, ondorioz, isunen zenbatekoa murriztu daiteke, bere borondatez edota administrazio eskuduneko agintarien lehen errekerimenduan urraketa bidez sortutako egoera zuzendu izana.

5.- Urraketa beraren ondorioz erantzule bat baino gehiago badaude, isunek beren artean izaera independentea edukiko dute.

26. PROPOSAMENA - 109. artikulua.- Ikerketa, mugaketa eta mugarri jartzea.

Egungo idazketa:

Arrazoa: Errepideei buruzko 37/2005 legeak 30.7 artikuluekin bat etorritik. Lurren inmatrikulazioa izanik, aplikazioa mugatzen da aurretik erregistro inskripziorik ez duten lurrei aplikatzen zaie; beraz, ez da ohiko kasu bat izango. Hala ere, kautela bat da, jabari publikoaren defentsa hobetzen laguntzen duena.

Kontuan izanda errepideei buruzko estatuko legeko zortasun eremua ez datorrela bat Foru Arauaren izen bereko eremuarekin, proposatzen da artikulua hau sartzea, honela:

Proposamena: 4. apartatu bat gehitzea.

Proposamenaren idazketa: Hirugarrenek Jabetza Erregistroan errepide batekin mugakide den ondasun higiezinak inmatrikulatu behar dituztenean, ezingo dute inmatrikulatu aurkeztu ezean errepidearen gaineko eskumena duen Administrazioaren egiaztagiria, kreditatzen duena ez dela inbaditzen jabari publikoa.

27. PROPOSAMENA - Lehen xedapen gehigarria

Egungo idazketa:

Errepideetatik gertu dauden etxegune berrietan, neurri egokiak hartzea aurreikusi beharko da, Garapen Iraunkorretako Departamentuak emandako txostenetatik soinu kalitateari dagokionez eratorritako helburuak bete daitezzen bermatzeko.

Orobat 2003ko azaroaren 17ko 37/2003 Legeak, Soinuarenak, ezarritako xedapenetara egokitzeko behar diren neurriak hartu beharko dira, batez ere halako alderdiak diseinatzerakoan, lehendik dauden bide azpiegiturei dagokienez soinu kalitatearen helburuak beteko direla bermatzeko.

Soinua murrizteko neurri horien artean, eta begi-inpaktua gutxitzeko helburu erantsiarekin, ahal den neurrian pantaila naturalak ezarriko dira, hots, zuhaitz eta zuhaixka autoktonoak landatuko dira.

Arrazoa: Xedapenak lege aldaketetara egokitzea

Proposamena: Indargabetzea lehen xedapen gehigarria, eta haren ordeaz beste artikulua bat sartzea IV. titulua - II. kapituluaren (58 bis artikulua) eta xedapen iragankor bat.

Proposamenaren idazketa:

56 bis artikulua berria: Ardura gai akustikoan

Area akustikoetan eta aurretik existitzen ziren bide azpiegiturek eragindako zortasun akustikoko eremuetan, non inmisio mailak izan baitaitezke handiagoak kalitate akustikoaren helburuak baino, pertsona fisiko edo juridiko sustatzaileak edo, bestela, udalak (lizentzia emateko eskumena duen aldetik), ardura du behar diren neurriak hartzeko, bere jarduera eremuaren diseinuan, inguruan edo fatxadan, kalitate akustikoaren helburuak lortzen direla bermatzeko, barruan eta kanpoan, indarrean dagoen legediari eta garapen dekretuei jarraikiz. Ardura honekin ez betetzea ezingo zaio leporatu, ez une horretan, ez etorkizunean, azpiegituraren titularra den administrazioari.

Xedapen iragankorra

Foru sareko errepide bakoitzetik datozen zortasun akustikoak edo mapa akustikoa onartzen ez den bitartean, indarrean dagoen legearekiko eta haren garapeneko dekretuekiko zortasun akustikoaren eremutzat hau hartuko da: azpiegituraren inguruan dagoen lur-eremua, indize akustikoaren sestrak mugatua zeina, hark sortzen duen soinu maila irudikatuz, dagokien area akustikoetan aplikagarri diren kalitate akustikoaren xedeekin betetzen baitu.

28. PROPOSAMENA - Hirugarren xedapen gehigarria

Egungo idazketa:

- 1.- Gipuzkoako Foru Aldundia ahalmenduta geratzen da errepideetako herri jabariko guneeetan dagoen mota guztietako publizitatea kalte-ordainik eta aldez aurreko abisurik gabe kentzeko.
- 2.- Era berean, Foru Aldundia ahalmenduta geratzen da errepideetatik ikus daitekeen publizitatea kentzeko, aldez aurretik lursailaren jabeari eskatu ondoren.

Arrazoa: Pankarten aipamena gehitzen da

Proposamena: Testua aldatzea aipamena gehitzeko.

Proposamenaren idazketa:

- 1.- Gipuzkoako Foru Aldundia ahalmenduta geratzen da errepideetako herri jabariko guneeetan dagoen mota guztietako publizitatea, kartelak edo pankartak, edonolakoak direla ere, kalte-ordainik eta aldez aurreko abisurik gabe kentzeko.
- 2.- Era berean, Foru Aldundia ahalmenduta geratzen da errepideetatik ikus daitekeen publizitatea, kartelak edo pankartak, edonolakoak direla ere kentzeko, aldez aurretik lursailaren jabeari eskatu ondoren.

29. PROPOSAMENA - Laugarren xedapen gehigarria

Egungo idazketa:

Lehen zeudenak berreginez administrazioak egingo dituen bideak udalaren jabetzakoak edota berregindako bide edo bideen jabearenak izango dira.

Arrazoa: Artikulu gisa sartzen da 37.aren ondoren (12. proposamena)

Proposamena: Ezabatu

Proposamenaren idazketa:

30. PROPOSAMENA - Amaierako bigarren xedapena

Egungo idazketa:

1. Foru Arauak ez die eragiten proiektuei eta obrak egiteari buruzko arau teknikoen indarraldiari eta ezta ere seinale, zirkulazio eta bide segurtasunekoei, Gipuzkoan betebeharrekoak baitira nazioarteko tratatuen edo Estatuko nahiz Autonomia Erkidegoko legeen indarrez.

2. Foru Arauaren arautegi ordezkagarri gisa Gipuzkoan herri jabetzako ondasunak arautzen dituen legerian erabakitakoa hartuko da kontuan.

Arrazoa: Europako zuzentarauen aipamena gehitu

Proposamena: Aldatu.

Proposamenaren idazketa:

1. Foru Arauak ez die eragiten proiektuei eta obrak egiteari buruzko arau teknikoen indarraldiari eta ezta ere seinale, zirkulazio eta bide segurtasunekoei, Gipuzkoan betebeharrekoak baitira nazioarteko tratatuen, Europako zuzentarauen edo Estatuko nahiz Autonomia Erkidegoko legeen indarrez.

2. Foru Arauaren arautegi ordezkagarri gisa Gipuzkoan herri jabetzako ondasunak arautzen dituen legerian erabakitakoa hartuko da kontuan.